# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia Iruña, 2008ko otsailaren 26a 18. ZK.

**A U R K I B I D E A**

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, jakiteko zergatik erabaki duen Nafarroako Gobernuak “Gaurtik aurrera elkarrekin amaituko dugu itxaronaldiekin... Solchaga larrialdi zentro berriaren bidez” kanpaina abian jartzea. Roberto Jiménez Alli jaunak egina (2. or.).

—Galdera, bitarteko irakasleek eta hezkuntza arloko sindikatuek eginiko eskakizunei buruzkoa. María Luisa Mangado Cortes andreak egina (3. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Dura Automotive enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea onesteko. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (3. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—2007ko maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako eginiko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (4. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina. Akats zuzenketa (19. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, jakiteko zergatik erabaki duen Nafarroako Gobernuak “Gaurtik aurrera elkarrekin amaituko dugu itxaronaldiekin... Solchaga larrialdi zentro berriaren bidez” kanpaina abian jartzea.

*ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik erabaki duen Nafarroako Gobernuak “Gaurtik aurrera elkarrekin amaituko dugu itxaronaldiekin... Solchaga larrialdi zentro berriaren bidez” kanpaina abian jartzea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2008ko otsailaren 19an, Nafarroan hedapen handienekoak diren egunkarietan iragarki instituzionat bat ikusi genuen, bi orritan eta koloretan. Izenburua honakoa zuen: "Gaurtik aurrera elkarrekin amaituko dugu itxaronaldiekin... Solchaga larrialdi zentro berriaren bidez".

Iragarki hori ikusirik, hau da galdera:

Zergatik erabaki du Nafarroako Gobernuak tamaina horretako kanpaina instituzionala egitea, gizartearentzat hain nabarmena, hauteskunde kanpaina hasteko bi egun falta zirela?

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

# Galdera, bitarteko irakasleek eta hezkuntza arloko sindikatuek eginiko eskakizunei buruzkoa.

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, bitarteko irakasleek eta hezkuntza arloko sindikatuek eginiko eskakizunei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, otsailaren 28rako eta 29rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Hezkuntza Departamentuko kontseilariak erantzun dezan:

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako behin-behineko irakasleek lan-gatazka dute, eta, iragarri dutenez, gaur greba deialdia eginen dute; hori dela eta, parlamentari honek galdera hau egiten du:

Ba al du kontseilariak asmorik behin-behineko irakasleei eta hezkuntzako sindikatuei entzuteko eta horiek eskatutakoak konpontzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

---

# Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Dura Automotive enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea onesteko.

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ba ote duen Dura Automotive enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea onesteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Dura Automotive enpresak enplegu-erregulazioko espedientea aurkeztu du, eta bertan ez da betetzen hitzarmen kolektiboan ezarritakoa: lan eginiko urte bakoitzeko 60 eguneko kalteordaina 152 langileetako bakoitzarentzat. Hori horrela, espediente hori onesteko asmoa al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# 2007ko maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako eginiko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 24an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak 2007ko maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako eginiko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## 2007ko maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako eginiko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen zuzentasunari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Helburua (4. or.).

**II.** Norainokoa eta mugak (5. or.).

II.1. Norainokoa (5. or.).

II.2. Mugak (6. or.).

**III.** Hauteskundeetako emaitzak eta gehieneko dirulaguntzak (6. or.).

III.1. Hauteskundeetako emaitzak (6. or.).

III.2. Hauteskundeetako gehieneko laguntzak (7. or.).

**IV.** Ondorioak (8. or.).

IV.1. Ondorio orokorra (8. or.).

IV.2. Alderdi politikoek aurkeztutako dokumentazioari buruzko ondorioak (8. or.).

IV.3. Formazio politikoek egindako gastuen eta jaso beharreko dirulaguntzen laburpena (9. or.).

**V.** Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen zuzentasuna (9. or.).

V.1. Unión del Pueblo Navarro (9. or.).

V.2. Nafarroa Bai hauteskunde-koalizioa (11. or.).

V.3. Nafarroako Alderdi Sozialista-Partido Socialista Obrero Español (11. or.).

V.4. Nafarroako Demokraten Elkargunea (14. or.).

V.5. Izquierda Unida de Navarra/Nafarroako Ezker Batua (15. or.).

I Eranskina (17. or.).

Nafarroako Alderdi Sozialistaren alegazioak (18. or.).

Nafarroako Alderdi Sozialistaren alegazioei emandako erantzuna (18. or.).

### I. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legeko 12. artikuluarekin bat eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan ezarritakoa betez, Comptos Ganberak informazioa emanen die Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari 2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeetan Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten alderdien hauteskunde-kontabilitatearen zuzentasunari buruz. Gainera, kontabilitatean irregulartasunik edo hauteskunde-gastu eta -dirusarreretako mugen urraketarik antzematen bada, alderdiari kasuan kasuko dirulaguntza ukatzea edo murriztea proposatuko du.

Horrenbestez, txosten honen helburua da iritzia ematea aipatu hauteskundeetan Parlamentuan ordezkaritza lortu duten alderdiek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateari buruz, eta iritzi

horren emaitza gisa, Nafarroako Parlamentuari proposatzea dagokion dirulaguntza ematea nahiz kendu edo murriztea. Helburu orokorra garatu edo zehazteko honakoak egiaztatuko ditugu:

• Legezkotasunaren betetzea, hala hertsiki hauteskundeetakoa dena, nola orokorrean aplikatzekoak diren merkataritza-arauak eta arau fiskalak eta kontabilitatekoak.

• Aurkeztutako hauteskunde-kontabilitatea islagarria izatea.

• Kontabilitate-erregistroen dokumentu bidezko justifikazioa.

## II. NORAINOKOA ETA MUGAK

II.1. NORAINOKOA

2007ko hauteskundeetan Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten alderdiek aurkeztu dituzten hauteskunde-kontabilitatea eta gastu eta dirusarreren justifikazioak aztertu ditugu lan honetan. Fiskalizazioa Nafarroako Parlamenturako hauteskunde prozesura mugatu da. Ez da, horrenbestez, kontabilitateen fiskalizazio bat, ez eta alderdi politikoen finantziazioarena ere.

Zehazki, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak –eta, hark aurreikusten ez duen orotan, Nafarroan ezartzekoa den 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzkoak– agindutakoa betetzeko, Nafarroako Comptos Ganberak bereziki fiskalizatu behar ditu hurrengo aldeak:

– Hauteskunde-kontabilitate bereizia –eskatutako justifikazioa eta kontabilitateko agiriak barne– epe barruan aurkeztu dela.

– Administratzaile nagusiek hauteskunde-funtsak biltzeko banku-kontuak ireki ote dituzten egiaztatzea, Foru Legeko 41. artikuluak eta Lege Organikoko 124. artikuluak ezarritakoari jarraikiz, eta dirusarrera eta ordainketa guztiak hauteskundeetako kontu korrontearen bidez egin direla egiaztatzea (lege organikoko 125.1 artikulua).

– Aurkeztu den kontabilitatea indarreko Kontabilitate Plan Orokorreko oinarri nagusiekin bat datorrela, Lege Organikoko 121. artikuluarekin bat.

– Hauteskunde prozesua finantzatzeko erabili diren baliabide guztien jatorria identifikatzea, oro har, eta hauteskunde-gastuei aurre egiteko funtsak jartzen dituztenei lege organikoko 126. artikuluak ezartzen dizkien betebeharrak betetzen direla.

– Lege organikoko 129. artikuluak pertsona fisiko zein juridikoei ezartzen dien muga, alegia, alderdi, federazio, koalizio edo elkarte jakin bati gehienez 6.010 euro eman ahal izatea.

– Hauteskunde-funtsak emateko debekuak, lege organikoko 128. artikuluak ezarriak, baldin eta ondoko hauetakoren batetik heldu badira funtsak: edozein administraziotatik edo entitate publiko nahiz paraestataletatik, bai eta, indarreko kontratu bidez, administrazio publikoren bati zerbitzuak edo hornidurak eman edo obrak egiten dizkioten enpresetatik. Debeku bera dute atzerriko erakunde edo pertsonek.

– Hauteskunde-gastuak, hauteskundeak deitu eta burutu bitartean egin direla egiaztatzea, Lege Organikoko 130. artikuluak ezarritakoaren arabera.

– Fiskalizatu diren talde politikoek aitortu dituzten gastuak Lege Organikoko 130. artikuluak ezarritakoaren barruan direla egiaztatzea. Hona Lege Organikoak aipatu gastuak nola sailkatzen dituen:

a) Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea.

b) Norbere hautagaien aldeko botoa sustatzeko zabalkunde eta publizitate zuzena edo zeharkakoa, edozein direla erabilitako modua eta bitartekoak.

c) Hauteskunde kanpainako ekintzak burutzeko lokalak alokatzea.

d) Hautagaiei zerbitzuak ematen dizkieten aldi baterako langileentzako ordainketak edo sariak.

e) Hautagaien, alderdi, elkarte, federazio edo koalizioetako zuzendarien, eta hautagaiaren zerbitzuko langileen garraiobideak eta joan-etorrien gastuak.

f) Posta eta zigiluak.

g) Hauteskunde kanpainarako hartu diren kredituen interesak, dagokion dirulaguntza jaso arte sortuak.

h) Hauteskundeetarako behar diren bulego eta zerbitzuen antolamendu eta jardunerako behar diren guztiak.

– Hauteskunde gastutzat deklaraturikoak eta behar den epean sortuak direnak aztertzea, ziurtatu ahal izateko kontabilitate, merkataritza eta zerga-arauek eskaturiko funtsezko betebeharrak betetzen dituzten dokumentuen bidez egiaztatu direla.

– Kontrolatzea ezein alderdik ez dituela honako muga hauek gainditu:

a) Foru Legeko 43.1 artikuluak ezarririko hauteskunde-gastuen gehienezko muga. Zenbateko hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emanda-

ko 98/2007 Foru Aginduak eguneratu eta finkatu zuen: 335.690 eurokoa da.

b) Aurreko Foru Aginduan eta 76/2003 Foru Dekretuan ezarritako muga, hautesleei propaganda, gutunazalak eta papeletak bidaltzeko gastuetarakoa. Muga horrek 0,21 euro hautesleko egiten du.

c) 5/85 Lege Organikoko 58.1 artikuluak ezarritako muga, egunkarietako eta titularitate pribatuko irratietako publizite-gastuak direla eta, hauteskunde-gastuen mugaren ehuneko 20 dena; hau da, 67.138 euro.

d) Bi hauteskunde-prozesutara —foru hauteskundeak eta udal hauteskundeak— aurkezten diren alderdietarako, aplikatzekoa den gastuaren muga izanen da haietatik aldekoena dena gehi Gorte Nagusie-tarako hauteskundeetarako ezarritako mugaren ehuneko 25. Hala eta guztiez ere, muga hori betetzen ote den berrikustea Kontuen Epaitegiari dagokio.

– Jaso beharreko dirulaguntzek, guztira, hauteskunde-gastu justifikatuak ez dituztela gainditzen egiazta-tzea; zehazki 98/2007 Foru Aginduak dirulaguntzetarako ondoko zenbatekoak ezartzen ditu:

a) Lortutako eserleku bakoitzeko, 10.458 euro.

b) Lortutako boto bakoitzeko, 0,84 euro, gutxienez ere eserleku bat lortzen baldin bada.

c) Hauteskundeetarako propaganda, gutunazalak eta boto-txartelak zuzenean bidaltzeagatik, 0,21 euro hautesle bakoitzeko.

– 1985eko ekainaren 19ko Lege Organikoko 133.3 eta 133.5 artikuluak betetzen diren egiaztatzea, Nafarroako hauteskundeei aplikatzekoak zaizkion moduan; ondoko betebeharrak ezartzen dituzte: finantza-erakundeek Kontuen Auzitegiari/Comptos Ganberari jakinarazi behar dizkiote elkarte politikoei hauteskunde-gastuetarako ematen dizkieten maileguak, eta orobat ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ere, zenbatekoa 6.010 euro ( milioi bat pezeta) baino handiagoa denean.

Hauteskunde arauen arabera, honakoak dira Nafarroako Parlamenturako 2007ko maiatzeko hauteskundeetatik sortu diren gastu eta dirusarreren kontabilitate zehaztu eta dokumentatua aurkeztu behar duten alderdi politikoak:

– Unión del Pueblo Navarro

– Nafarroa Bai hauteskunde-koalizioa

– Nafarroako Alderdi Sozialista-Partido Socialista Obrero Español

– Nafarroako Demokraten Elkargunea

– Izquierda Unida de Navarra/Nafarroako Ezker Batua

Aurreko formazioek guztiek beren hauteskundeetako kontabilitatea aurkeztu dute Comptos Ganberan ezarritako epearen barruan –2007ko uztailaren 27a–, eta horren emaitzak txosten honen IV. idatz-zatian agertzen dira.

II.2. MUGAK

Egin den lanean izan ditugun mugen jatorriak ondoko hauek izan dira:

• Hauteskundeetako gastuen eta dirusarreren fiskalizazio osoa egiteak eskatuko luke alderdi politikoen ekonomi eta finantza jardun guztia aztertzea, eta aplikagarria den legeriak Kontuen Epaitegiari ematen dio ahalmen hori.

• Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak eta udal-kontzejuetako hauteskundeak, zein Europakoak, batera egiteak, benetan zaildu du hauteskunde bakoitzari dagozkion gastu eta dirusarrerak zehaztea.

Azterketa-lana 2007ko abuztuan egin zuen auditoriako teknikari bik, bekadun batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure lan honetan esku hartu duten guztiei, eman diguten laguntzarengatik.

## III. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK ETA GEHIENEKO DIRULAGUNTZAK.

III.1. HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK.

2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeak egin ondoren, hona eserlekua lortu duten talde politikoek eskuratutako botoak eta eserleku kopurua, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren 2007ko ekainaren 1eko Zenbaketa Aktaren arabera, eta Batzar berak bidali eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (2007ko ekainaren 25eko 1. NPAO) argitaraturiko foru parlamentarien zerrendarekin bat:

| Alderdia | Eserlekuak | Botoak | Hautesleak |
|---|---|---|---|
| Unión del Pueblo Navarro | 22 | 139.132 | |
| Nafarroa Bai hauteskunde-koalizioa | 12 | 77.872 | |
| Nafarroako Alderdi Sozialista | 12 | 74.158 | |
| Nafarroako Demokraten Elkargunea | 2 | 14.412 | |
| Nafarroako Ezker Batua | 2 | 14.337 | |
| Guztira | 50 | 319.911 | 471.653 |

III.2. HAUTESKUNDEETAKO GEHIENEKO LAGUNTZAK.

Txosten honetako II. atalean aipaturiko hauteskunde-arauen arabera, Nafarroako Foru Komunitateak hurrengo dirulaguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteei:

a) Hauteskundeetako emaitzengatik:

– Lortutako eserleku bakoitzeko, 10.458 euro.

– Lortutako boto bakoitzeko, 0,84 euro, gutxienez ere eserleku bat lortzen baldin bada.

b) Hauteskundeetarako propaganda, gutunazalak eta boto-txartelak zuzenean bidaltzeagatik, 0,21 euro hautesle bakoitzek[(1)], gutxienez ere eserleku bat lortu duten hauteskunde-zerrendei, hori egin dutela betiere justifikatuta.

Egiazki eginiko hauteskunde gastuen dirukopurua gainditzen duen dirulaguntzarik ez da behin ere emanen.

Aurreko hauteskunde-emaitzak eta haien araberako dirulaguntzak kontuan izanda, ondoko taulan jaso ditugu 2007ko hauteskundeetan gutxienez eserleku bat lortu duten formazioetako bakoitzari legokiokeen gehieneko dirulaguntza teorikoa.

GEHIENEKO DIRULAGUNTZAK (eurotan)

| Alderdia | Hauteskundeetako emaitzengatik | Propaganda bidaltzeagatik |
|---|---|---|
| Unión del Pueblo Navarro | 346.946,88[(2)] | 99.047,13 |
| Nafarroa Bai hauteskunde-koalizioa | 190.908,48 | 99.047,13 |
| Nafarroako Alderdi Sozialista | 187.788,72 | 99.047,13 |
| Nafarroako Demokraten Elkargunea | 33.022,08 | 99.047,13 |
| Nafarroako Ezker Batua | 32.959,08 | 99.047,13 |
| Guztira | 791.625,24 | 495.235,65 |

*(1) Erroldatutako hautesle kopurua 471.653koa da, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren arabera*
*(2) Hauteskunde-gastuen muga, bidalketa zuzenari buruzkoak alde batera utzita, 335.690 eurokoa da.*

**Dirulaguntzen aurrerapena**

Nafarroako Gobernuak bi aurrerakin eman ditu, aurreko 2003ko foru hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren ehuneko 30 eta gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten dutenak, 2007ko maiatzaren 7ko eta abuztuaren 20ko Erabakien bidez. Erabaki horiek Foru hauteskundeei buruzko Foru Legearen 45.1. eta 46.2. artikuluetan oinarrituta hartu dira.

| Alderdia | % 30eko aurrerakina | % 45eko aurrerakina |
|---|---|---|
| Unión del Pueblo Navarro | 98.781,33 | 156.126,10 |
| Nafarroa Bai hauteskunde-koalizioa | 86.009,41 | 85.908,82 |
| Nafarroako Alderdi Sozialista | 71.306,58 | 84.504,92 |
| Nafarroako Demokraten Elkargunea | 42.581,26 | 14.859,94 |
| Nafarroako Ezker Batua | 43.796,26 | 14.831,59 |

## IV. ONDORIOAK

### IV.1. ONDORIO OROKORRA

Egindako fiskalizazioaren norainokoa eta emaitzak kontuan hartuta, Comptos Ganbera honek zera erabaki du: 16/86 Foru Legeko 47. artikuluak aurreikusitako hauteskunde-dirulaguntzak kentzea edo murriztea ez proposatzea, Nafarroako Parlamentuko 2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeetan eserlekua atera duen ezein alderdi politiko edo koaliziorentzat.

Dena den, bi hauteskunde-prozesu izan direnez aldi berean, kontuan izan behar da 5/1985 Lege Organikoko 131.2 artikuluan araututako gastuen gehieneko mugak baduela zer esanik. Estatuko Kontuen Epaitegiak zainduko du hori betetzen dela.

### IV.2. ALDERDI POLITIKOEK AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOARI BURUZKO ONDORIOAK

Eginiko azterketatik, nabarmentzekoak dira:

* Beren kontabilitatea Comptos Ganberari aurkeztu behar zioten formazio guztiek betebehar hori legez ezarritako epean bete dute.

* Alderdi guztiek indarreko arauetan hauteskunde-gasturako ezarritako mugak bete dituzte.

* Alderdi guztiek adierazi dute nondik datozen funtsak, alderdiek emandako diruari dagokionez, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 126.3. artikuluan ezartzen den moduan.

* Aurrekontuko fakturei eta egiaztagiriei buruz hau diogu:

a) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskunde-jatorrikoak dira; hala ere, gastuak eta hauteskunde-mugak zehazteko, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan, bidalitako gastuak birsailkatu behar izan ditugu. Oro har, fakturek ez dute eramaten aldean hauteskunde-kanpainako arduradunen oniritzia.

b) Ez da behar beste xehetasun ematen, zer erosketa edo zerbitzu den, edo zerbitzua hauteskunde kanpainan nola erabili den; beraz, ezin da zuzenean hauteskunde gastu gisara sailkatu eta ezin da esan zenbatekoa arrazoizkoa denentz.

c) Gastua adierazitako hauteskunde-aldi baliodunaren barruan egin izanaren egiaztapena zail gertatzen da, informazio hori formazio politikoek emandako dokumentazioan ez dagoelako.

* Eragiketa horiek ganbera honi jakinarazteko betebeharra duten hirugarrenek bete dute, oro har, informazioa emateko betebehar hiru, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluari jarraikiz.

**Gomendioak**

Egungo araudiaren arabera, Comptos Ganbera honi dagokion hauteskunde-arautasunaren kontrola hobetzeko asmotan, hona gomendioak:

** Behar besteko xehetasunez azal dadila zer den erositako ondasuna edo zerbitzua eta hauteskundeetako ekintza zehatzetan zertarako erabili den, bai eta Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan zehazturiko hauteskunde gastuei egoztea ere.*

** Aurkezten diren kontuetan jaso daitezela egoera-balantzearen kontuak eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen dirusarrera eta gastuen emaitzak.*

** Gastua erakusten duten faktura guztiek izan dezatela alderdiko administratzailearen ikus-onespena.*

IV.3. FORMAZIO POLITIKOEK EGINDAKO GASTUEN ETA JASO BEHARREKO DIRULAGUNTZEN LABURPENA

Txosten honetako V. atalean islatutako emaitzen arabera, kontuan hartuta gastuen legezko mugak eta gehieneko dirulaguntzak eserleku bakoitzeko eta boto kopuruaren arabera, ondoko taulan formazio bakoitzaren gastuen laburpena eta jaso beharreko dirulaguntza bildu ditugu, eurotan adierazita.

| Alderdia | UPN | NA-BAI | SPN | CDN | IUN-NEB | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Onartutako gastuak, guztira | 411.526 | 282.208 | 276.232 | 251.757 | 275.186 | 1.496.909 |
| Jaso beharreko dirulaguntza, guztira | 411.526 | 276.147 | 276.232 | 125.263 | 129.203 | 1.218.371 |
| Finantzatutako ehunekoa | 100,00 % | 97,85% | 100,00% | 49,76% | 46,95% | 81,39% |
| 1. aurrerakina (2003an jasotako dirulaguntzaren %30) | 98.781 | 86.009 | 71.307 | 42.581 | 43.796 | 342.475 |
| 2. aurrerakina (dirulaguntzaren %45,2007ko hauteskunde emaitzengatik) | 156.126 | 85.909 | 84.505 | 14.860 | 14.832 | 356.231 |
| Kitatu gabea | 156.618 | 104.229 | 120.421 | 67.822 | 70.575 | 519.664 |

Nafarroako Parlamentuan ordezkaritza izatea lortu duten alderdi politikoek aurkeztu dituzten hasuteskunde-gastuek, doitu ondoren, 1.496.909,32 euro egiten dute, guztira.

Nafarroako Gobernuak gastu horiek finantzatzen ditu 1.218.370,69 euroko ekarpenekin, hau da, kostu osoaren ehuneko 81,39. Alderdiek ekarpenak jasotzen dituzte hauteskundeetako emaitzen eta egiaztaturiko bidalketa zuzenari buruzko gastuen arabera.

Kontuei buruzko xehetasunak I. eranskinean agertzen dira.

## V. AURKEZTUTAKO HAUTESKUNDE-KONTABILITATEEN ZUZENTASUNA

### V.1. UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

Alderdi politikoak gastuen egoera-orriaren laburpen bat aurkezten du, kontzeptuen arabera, lege organikoaren 130. artikuluan ezarritako hauteskunde-gastuen sailkapenari jarraikiz. Hauteskunde-kontabilitateak Nafarroako Parlamenturako eta udaletarako hauteskundeetatik eratorritako gastuak eta dirusarrerak biltzen ditu.

a) Aurkeztutako gastuen eta dirusarreren laburpena

Igorritako informazioaren arabera, honako hau da hauteskundeetako gastuen eta dirusarreren laburpena (eurotan):

| | |
|---|---|
| Dirusarrerak, guztira | 411.884,40 |
| Gastuak, guztira | 411.525,90 |
| Saldoa | 358,50 |

Saldoaren banaketa:

| | |
|---|---|
| Kutxa saldoa | 238,41 |
| Zordunak | 38.300,00 |
| Hauteskundeetarako kontuaren saldoa | (38.179,91) |
| Guztira | 358,50 |

b) Hauteskundeetako dirusarrerak.

Hauek osatzen dituzte hauteskundeetako dirusarrerak:

| | |
|---|---|
| Alderdiaren ekarpenak | 313.100,00 |
| Nafarroako Gobernuaren 1. aurrerakina | 98.781,33 |
| Bestelako dirusarrerak | 3,07 |
| Guztira | 411.884,40 |

Dirusarrera horiek zuzen egiaztatu dira.

Nafarroako Gobernuak 156.126,10 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2007ko abuztuaren 20ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

c) Hauteskunde-gastuak

Hona hemen Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluaren xehakapena, kontzeptuen arabera:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aurkeztuak | Birsailkatuak |
|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea. | 0,00 | 0,00 |
| Publizitatea: prentsa eta irratia | 238.604,23 | 66.658,01 |
| Publizitatea: beste publizitate-gastu batzuk | | 170.924,11 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 17.495,62 | 20.829,02 |
| Aldi baterako langileentzako ordainketak | 0,00 | 0,00 |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | 5.194,69 | 5.194,69 |
| Posta eta zigiluak | 893,55 | 0,00 |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk | 58.028,86 | 56.611,12 |
| Gastu arruntak, guztira | 320.216,95 | 320.216,95 |
| Zuzeneko bidalketaren gastuak, guztira | 91.308,95 | 91.308,95 |
| Gastuak, guztira | 411.525,90 | 411.525,90 |

Aurkezturiko gastu guztiak onartu dira.

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

1) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskunde-jatorrikoak dira; halere, fakturetan ez da ageri kanpainako arduradunen oniritzia. Gastuen kontzeptuen araberako aurkezpenean birsailkapen bat egin dugu, legeak ezarritako mugak aplikatzen direla egiaztatze aldera.

2) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak. Gastu horien zenbatekoak ez du gainditzen hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzaren gehieneko kopurua.

3) Hauteskunde-propaganda igortzeko gastuek ez dute gainditzen kontzeptu horretarako dirulaguntzetan ezarritako gehieneko muga (99.047,13 euro); hori dela eta, gastu errealaren arabera egokitu beharko da dirulaguntza.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

6.010 euro baino gehiago fakturatu dituzten lau enpresa identifikatuek horixe Comptos Ganberari jakinarazteko betebeharra bete dute, Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

e) Proposamena

Comptos Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasotako proposamenetatik batere ez formulatzea.

Horrenbestez, honakoak dira Unión del Pueblo Navarro formazioak jaso beharreko dirulaguntzak:

| Dirulaguntza | Dirulaguntza teorikoa | Gauzatutako gastuak | Dagokion dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako emaitzengatik | 346.946,88 | 320.216,95 | 320.216,95 |
| Propaganda bidaltzeagatik | 95.860,59 | 91.308,95 | 91.308,95 |
| Dirulaguntza, guztira | | | 411.525,90 |
| Nafarroako Gobernuaren aurrerakina | | | (98.781,33) |
| Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira | | | 312.744,57 |

Ordaintzeko dagoen kopuru horretatik, Comptos Ganberari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak, 2007ko abuztuaren 20ko erabakiaren bidez, foru legearen 46. artikuluaren arabera emandako bigarren aurrerakina, 156.126,10 eurokoa, kendu beharko da, kasua bada.

V.2. NAFARROA BAI HAUTESKUNDE-KOALIZIOA

a) Aurkeztutako hauteskunde-gastu eta -dirusarreren laburpena.

Igorritako informazioaren arabera, honako hau da hauteskundeetako gastuen eta dirusarreren laburpena (eurotan):

| | Aurkeztuak |
|---|---|
| Dirusarrerak, guztira | 285.276,64 |
| Gastuak, guztira | 286.556,48 |
| Saldoa | (1.279,84) |

Emaitzen kontuan agertzen dira aurreikusitako dirulaguntzei dagozkien dirusarrera kalkulatuak; hain zuzen, 190.701 euro gastu arruntengatik eta 85.238,41 euro zuzeneko bidalketari buruzko gastuengatik. Koalizioak 150.000 euroko bankuko kreditu bat dauka kontabilizatuta, baita Nafarroako Gobernuaren aurrerakin bat ere, 86.009,41 eurokoa.

Hauexek dira egoerari buruzko balantzearen xehetasunak:

| | |
|---|---|
| Hauteskundeetako kontu korrontean dagoena | 7.407,62 |
| Kutxa | 510,84 |
| Zordunak | 7.171,70 |
| Ordaintzeke dauden dirulaguntzak | 189.930,00 |
| Zorrak koalizioarekin | (56.300) |
| Banku-kreditua | (150.000,00) |
| Defizita | 1.279,84 |

b) Hauteskundeetako dirusarrerak.

Hauexek dira erabilitako finantza-funtsen dirusarrerei buruzko xehetasunak:

| | |
|---|---|
| Zorpetzea | 150.000,00 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | 86.009,41 |
| Koalizioaren ekarpena | 56.300,00 |
| Militanteen ekarpenak eta salmentak | 9.336,88 |
| Finantza dirusarrerak | 0,35 |
| Guztira | 301.646,64 |

Nafarroako Gobernuak 85.908,82 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2007ko abuztuaren 20ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

Dirusarrera horiek zuzen justifikatu dira.

c) Hauteskunde-gastuak

Hona hemen Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluaren xehakapena, kontzeptuen arabera:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aitorturikoak | Onartuak |
|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea. | 0,00 | 0,00 |
| Publizitatea: prentsa eta irratia | 39.258,50 | 39.258,50 |
| Publizitatea: beste publizitate-gastu batzuk | 86.633,60 | 86.158,00 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 11.496,54 | 11.484,79 |
| Aldi baterako langileentzako ordainketak | 5.385,87 | 5.448,52 |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | 7.896,49 | 5.683,31 |
| Kredituen interesak | 0,00 | 0,00 |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk | 50.647,07 | 48.936,17 |
| Gastu arruntak, guztira | 201.318,07 | 196.969,29 |
| Zuzeneko bidalketari buruzko gastuak, guztira | 85.238,41 | 85.238,41 |
| Onartutako gastuak, guztira | 286.556,48 | 282.207,70 |

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

1) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskunde-jatorrikoak dira; halere, fakturetan ez da beti ageri kanpainako arduradunen oniritzia. Aurkezturiko gastuen zenbatekoak gainditzen duenez hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzaren gehieneko kopurua, proposaturiko 4.348,78 euroko doikuntzak ez du eraginik jaso beharreko dirulaguntzen azken zenbatekoan.

Hauteskunde-gastuak Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan zehazte aldera, igorritako gastuak birsailkatu behar izan ditugu.

2) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak. Gastu horien zenbatekoak ere ez du gainditzen hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzaren gehieneko kopurua.

3) Hauteskunde-programak igortzeko gastuek ez dituzte gainditzen kontzeptu horretarako dirulaguntzetan ezarritako gehieneko muga (99.047,13 euro); hori dela eta, gastu errealaren arabera egokitu beharko da.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Bai kreditua eman duen banketxeak bai kanpainako eragiketak direla-eta 6.010 euro baino gehiago fakturatu dituzten zortzi enpresa hornitzaileek, bete dute Comptos Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

e) Proposamena

Comptos Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasotako proposamenetatik bat ere ez formulatzea.

Horrenbestez, honakoak dira koalizioak jaso beharreko dirulaguntzak:

| Dirulaguntza | Dirulaguntza teorikoa | Gauzatutako gastuak | Dagokion dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako emaitzengatik | 190.908,48 | 196.969,29 | 190.908,48 |
| Propaganda bidaltzeagatik | 96.244,05 | 85.238,41 | 85.238,41 |
| Dirulaguntza, guztira | | | 276.146,89 |
| Nafarroako Gobernuaren aurrerakina | | | (86.009,41) |
| Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira | | | 190.137,48 |

Ordaintzeko dagoen kopuru horretatik, Comptos Ganberari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak, 2007ko abuztuaren 20ko erabakiaren bidez, foru legearen 46. artikuluaren arabera emandako aurrerakina, 85.908,82 eurokoa, kendu beharko da, kasua bada.

## V.3. NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA-PARTIDO SOCIALISTA OBRERO ESPAÑOL

a) Aurkeztutako hauteskunde-gastu eta -dirusarreren laburpena.

Igorritako informazioaren arabera, honako hau da hauteskundeetako gastuen eta dirusarreren laburpena (eurotan):

| | Aurkeztuak |
|---|---|
| Dirusarrerak, guztira | 276.240,06 |
| Gastuak, guztira | 276.240,06 |
| Saldoa | 0 |

Emaitzen kontuan agertzen dira aurreikusitako dirulaguntzei dagozkien dirusarrera kalkulatuak; hain zuzen, 180.000 euro gastu arruntengatik eta 96.240,06 euro zuzeneko bidalketari buruzko gastuengatik. PSNk 194.900 euroko banku-kreditu bat dauka kontabilizatuta, baita Nafarroako Gobernuaren aurrerakin bat ere, 71.306,58 eurokoa.

Hauexek dira egoerari buruzko balantzearen xehetasunak:

| | |
|---|---|
| Kreditu-kontuko izakinak | 4.147,97 |
| Taldeko enpresen kontuak | (10.000,00) |
| Ordaintzeke dauden dirulaguntzak | 204.933,48 |
| Ordaintzeke dauden interesak | (4.181,45) |
| Banku-kreditua | (194.900,00) |

b) Hauteskundeetako dirusarrerak.

Hauek osatzen dituzte funts dirusarrerak:

| | |
|---|---|
| Zorpetzea | 194.900,00 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | 71.306,58 |
| Alderdiaren ekarpenak | 10.000,00 |
| Guztira | 276.206,58 |

Nafarroako Gobernuak 84.504,92 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2007ko abuztuaren 20ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

Dirusarrera horiek zuzen justifikatu dira.

c) Hauteskunde-gastuak

Hona hemen Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluaren xehakapena, kontzeptuen arabera:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aitorturikoak | Onartuak |
|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea. | 0,00 | 0,00 |
| Publizitatea: prentsa eta irrati pribatuak | 24.776,21 | 24.776,21 |
| Publizitatea: beste publizitate-gastu batzuk | 75.788,50 | 75.788,50 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 14.722,22 | 14.722,22 |
| Aldi baterako langileentzako ordainketak | 9.221,71 | 9.221,71 |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | 15.141,38 | 15.133,38 |
| Kredituen interesak | 2.537,06 | 2.727,69 |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk | 37.812,92 | 37.825,22 |
| Gastu arruntak, guztira | 180.000,00 | 180.194,93 |
| Zuzeneko bidalketari buruzko gastuak, guztira | 96.240,06 | 96.037,13 |
| Onartutako gastuak, guztira | 276.240,06 | 276.232,06 |

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

1) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskunde-jatorrikoak dira; halere, fakturetan ez da beti ageri kanpainako arduradunen oniritzia.

Hauteskunde-gastuak Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan zehazte aldera, igorritako gastuak birsailkatu behar izan ditugu. Zuzeneko bidalketari buruzko gastuetan proposaturiko 202,93 euroko doikuntzaren arrazoia da finantzagastu eta korrituak gastu arrunten eta zuzeneko bidalketari buruzkoen gainean egozten direla, kasuan kasuko zenbatekoen proportzioan, eta horren emaitza da PSNk kontabilizaturiko zenbatekoekiko aldea. Doikuntzak ez du eraginik jaso beharreko guztizko dirulaguntza kalkulatzerakoan.

2) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak. Gastu horien zenbatekoak ere ez du gainditzen hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzaren gehieneko kopurua.

3) Hauteskunde-propaganda igortzeko gastuek ez dute gainditzen kontzeptu horretarako dirulaguntzetan ezarritako gehieneko muga (99.047,13 euro); hori dela eta, gastu errealaren arabera egokitu beharko da.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Bai kreditua eman duen banketxeak bai kanpainako eragiketak direla-eta 6.010 euro baino gehiago fakturatu dituzten zazpi enpresa hornitzaileek, bete dute Comptos Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

e) Proposamena

Comptos Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasotako proposamenetatik bat ere ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Nafarroako Alderdi Sozialista formazioak jaso beharreko dirulaguntzak:

| Dirulaguntza | Dirulaguntza teorikoa | Gauzatutako gastuak | Dagokion dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako emaitzengatik | 187.788,72 | 180.194,93 | 180.194,93 |
| Propaganda bidaltzeagatik | 96.240,06 | 96.037,13 | 96.037,13 |
| Dirulaguntza, guztira | | | 276.232,06 |
| Nafarroako Gobernuaren aurrerakina | | | (71.306,58) |
| Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira | | | 204.925,48 |

Ordaintzeko dagoen kopuru horretatik, Comptos Ganberari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak, 2007ko abuztuaren 20ko erabakiaren bidez, foru legearen 46. artikuluaren arabera emandako aurrerakina, 84.504,92 eurokoa, kendu beharko da, kasua bada.

V.4. NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

a) Aurkeztutako hauteskunde-gastu eta -dirusarreren laburpena.

Igorritako informazioaren arabera, honako hau da hauteskundeetako gastuen eta dirusarreren laburpena (eurotan):

| | |
|---|---|
| Hauteskundeetako dirusarrerak | 117.782,88 |
| Kredituagatiko dirusarrerak | 140.000,00 |
| Dirusarrerak, guztira | 257.782,88 |
| Gastuak, guztira | 251.757,35 |
| Saldoa | 6.025,53 |

Kontabilitateari dagokionez, aurreko saldoa honela islatzen da:

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako ontuetakkontuetako izakinak | 6.025,53 |
| - Pasiboa | (6.025,53) |

b) Hauteskundeetako dirusarrerak.

Hauek osatzen dituzte finantza-baliabideen dirusarrerak:

| | |
|---|---|
| Alderdiaren ekarpenak | 75.000,00 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina. | 42.581,26 |
| Militante eta jarraitzaileen ekarpena | 200,00 |
| Zorpetzea | 140.000,00 |
| Finantza dirusarrerak | 1,62 |
| Guztira | 257.782,88 |

Nafarroako Gobernuak 14.859,94 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2007ko abuztuaren 20ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

Dirusarrera horien justifikazioa hauteskundearauek ezarritakoaren araberakoa da.

c) Hauteskunde-gastuak

Hona hemen Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluaren xehakapena, kontzeptuen arabera:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aitorturikoak | Onartuak |
|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea. | 1.736,05 | 1.736,05 |
| Publizitatea: prentsa eta irratia | 66.002,67 | 66.002,67 |
| Publizitatea: beste publizitate-gastu batzuk | 81.919,58 | 81.919,58 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 1.716,20 | 1.716,20 |
| Aldi baterako langileentzako ordainketak | 0,00 | 0,00 |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | 433,44 | 433,44 |
| Kredituen interesak | 0,00 | 0,00 |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk | 7.708,78 | 7.708,78 |
| Gastu arruntak, guztira | 159.516,72 | 159.516,72 |
| Zuzeneko bidalketari buruzko gastuak, guztira | 92.240,63 | 92.240,63 |
| Onartutako gastuak, guztira | 251.757,35 | 251.757,35 |

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

1) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira.

Hauteskunde-gastuak Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan zehazte aldera, igorritako gastuak birsailkatu behar izan ditugu.

2) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

3) Hauteskunde-programak igortzeko gastuek ez dute gainditzen kontzeptu horretarako dirulaguntzetan ezarritako gehieneko muga (99.047,13 euro); hori dela eta, gastu errealaren arabera egokitu beharko da.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Bai kreditua eman duen banketxeak bai kanpainako eragiketak direla-eta 6.010 euro baino gehiago fakturatu dituzten bi enpresek, bete dute Comptos Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

e) Proposamena

Comptos Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47 artikuluan jasotako proposamenetatik batere ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Nafarroako Demokraten Elkargunea formazioak jaso beharreko dirulaguntzak:

| Dirulaguntza | Dirulaguntza teorikoa | Gauzatutako gastuak | Dagokion dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako emaitzengatik | 33.022,08 | 159.516,72 | 33.022,08 |
| Propaganda bidaltzeagatik | 96.239,64 | 92.240,63 | 92.240,63 |
| Dirulaguntza, guztira | | | 125.262,71 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | | | (42.581,26) |
| Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira | | | 82.681,45 |

Ordaintzeko dagoen kopuru horretatik, Comptos Ganberari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak, 2007ko abuztuaren 20ko erabakiaren bidez, foru legearen 46. artikuluaren arabera emandako aurrerakina, 14.859,94 eurokoa, kendu beharko da, kasua bada.

V.5. IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA/NAFARROAKO EZKER BATUA

a) Aurkeztutako hauteskunde-gastu eta -dirusarreren laburpena.

Igorritako informazioaren arabera, honako hau da hauteskundeetako gastuen eta dirusarreren laburpena (eurotan):

| | |
|---|---|
| Dirusarrerak, guztira | 275.707,45 |
| Gastuak, guztira | 275.707,32 |
| Saldoa | 0,13 |

b) Hauteskundeetako dirusarrerak.

Hauek osatzen dituzte hauteskundeetako dirusarrerak:

| | |
|---|---|
| Zorpetzea | 94.848,71 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | 43.796,26 |
| Alderdiaren ekarpena | 137.061,61 |
| Bestelako dirusarrerak | 0,87 |
| Guztira | 275.707,45 |

Nafarroako Gobernuak 14.831,59 euroko bigarren aurrerakin bat eman du, gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45 egiten duena, 2007ko abuztuaren 20ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori kontabilitatea igorri ondoren hartu zen.

Oro har, dirusarrera horien justifikazioa hauteskunde-arauek ezarritakoaren araberakoa da.

c) Hauteskunde-gastuak

Hona hemen Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluaren xehakapena, kontzeptuen arabera:

| Gastuak kontzeptuen arabera | Aitorturikoak | Onartuak |
|---|---|---|
| Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea. | 46,40 | 0,00 |
| Publizitatea: prentsa eta irratia | 58.370,51 | 58.370,51 |
| Publizitatea: beste publizitate-gastu batzuk | 67.024,08 | 67.024,08 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 2.929,47 | 2.929,47 |
| Aldi baterako langileentzako ordainketak | 3.115,01 | 3.115,01 |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | 4.954,16 | 4.725,96 |
| Kredituen interesak | 2.528,00 | 2.528,00 |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk | 17.166,38 | 16.919,97 |
| Gastu arruntak, guztira | 156.134,01 | 155.613,00 |
| Zuzeneko bidalketari buruzko gastuak, guztia | 119.573,31 | 119.573,31 |
| Onartutako gastuak, guztira | 275.707,32 | 275.186,31 |

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

1) Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude eta hauteskundeekin lotutakoak dira. Aurkezturiko gastuen zenbatekoak gainditzen duenez hauteskunde-emaitzengatiko dirulaguntzaren gehieneko kopurua, proposaturiko 521,01 euroko doikuntzak ez du eraginik dirulaguntzen azken zenbatekoan.

Hauteskunde-gastuak Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikuluan ezartzen den moduan zehazte aldera, igorritako gastuak birsailkatu behar izan ditugu.

2) Ez dira gainditu hauteskunde-gastuen eta komunikabide pribatuen publizitate-gastuen kontzeptuetarako ezarritako legezko mugak.

3) Hauteskunde-propagandak igortzeko gastuek gainditzen dute kontzeptu horretarako dirulaguntzetan ezarritako gehieneko muga (99.047,13 euro) gainditzen dute; hori dela eta, eginiko zuzeneko bidalketen kopuruari buruzko gehieneko dirulaguntza teorikoren arabera egokitu beharko da dirulaguntza.

d) Hirugarrenen betebeharrak.

Bai kreditua eman duen banketxeak bai kanpainako eragiketak direla-eta 6.010 euro baino gehiago fakturatu dituzten lau enpresek, bete dute Comptos Ganberari jakinarazteko betebeharra, Hauteskunde erregimen orokorrari buruzko Lege Organikoaren 133. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

e) Proposamena

Comptos Ganberak erabaki du Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legeko 47. artikuluan jasotako proposamenetatik bat ere ez egitea.

Horrenbestez, honakoak dira Nafarroako Ezker Batua formazioak jaso beharreko dirulaguntzak:

| Dirulaguntza | Dirulaguntza teorikoa | Gauzatutako gastuak | Dagokion dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| Hauteskundeetako emaitzengatik | 32.959,08 | 155.613,00 | 32.959,08 |
| Propaganda bidaltzeagatik | 96.244,05 | 119.573,31 | 96.244,05 |
| Dirulaguntza, guztira | | | 129.203,13 |
| Nafarroako Gobernuaren lehen aurrerakina | | | (43.796,26) |
| Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira | | | 85.406,87 |

Ordaintzeko dagoen kopuru horretatik, Comptos Ganberari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak, 2007ko abuztuaren 20ko erabakiaren bidez, foru legearen 46. artikuluaren arabera emandako aurrerakina, 14.831,59 eurokoa, kendu beharko da, kasua bada.

Txosten hau José Fuertes Pérez auditoreak proposatuta eman da, bera baita lan hau burutzeko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

## I. ERANSKINA

MUGAK: Gastu arruntak = 335.690€
Prentsan eta irratian eginiko publizitatearen gastuak = 67.138 € (335.690ren %20)

GEHIENEKO DIRULAGUNTZAK Eserlekuko = 10.458€
Boto bakoitzeko = 0,84€
Bidalketagatik = 0,21€ (betiere, bidalketa kopuruak ez badu gainditzen hautesle kopurua, hau da, 471.653)

2007ko HAUTESKUNDEETAKO GASTUEN ETA DIRULAGUNTZEN LABURPENA

| ALDERDIAK | UPN | | NA-BAI | | SPN | | CDN | | IUN-NEB | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eserleku kopurua | | 22 | | 12 | | 12 | | 2 | | 2 | 50 |
| Boto kopurua | | 139.132 | | 77.872 | | 74.158 | | 14.412 | | 14.337 | 319.911 |
| Gastu arruntengatiko gehieneko dirulaguntza teorikoa | | 346.946,88 | | 190.908,48 | | 187.788,72 | | 33.022,08 | | 32.959,08 | 791.625,24 |
| Bidalketa kopurua | | 456.479 | | 458.305 | | 458.286 | | 458.284 | | 458.305 | |
| Eginiko zuzeneko bidalketaren kopuruari buruzko gehieneko dirulaguntza teorikoa | | 95.860,59 | | 96.244,05 | | 96.240,06 | | 96.239,64 | | 96.244,05 | 480.828,39 |
| Gastuak kontzeptuen arabera | Aitorturikoak | Onartuak | Aitorturikoak | Onartuak | Aitorturikoak | Onartuak | Aitorturikoak | Onartuak | Aitorturikoak | Onartuak | |
| Hauteskundeetako gutunazalak eta papeletak egitea. | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 1.736,05 | 1.736,05 | 46,40 | 0,00 | 1.736,05 |
| Publizitatea: prentsa eta irratia | 66.658,01 | 66.658,01 | 39.258,50 | 39.258,50 | 24.776,21 | 24.776,21 | 66.002,67 | 66.002,67 | 58.370,51 | 58.370,51 | 255.065,90 |
| Publizitatea: beste publizitate-gastu batzuk | 170.924,11 | 170.924,11 | 86.633,60 | 86.158,00 | 75.788,50 | 75.788,50 | 81.919,58 | 81.919,58 | 67.024,08 | 67.024,08 | 481.814,27 |
| Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea | 20.829,02 | 20.829,02 | 11.496,54 | 11.484,79 | 14.722,22 | 14.722,22 | 1.716,20 | 1.716,20 | 2.929,47 | 2.929,47 | 51.681,70 |
| Aldi baterako langileentzako ordainketak | 0,00 | 0,00 | 5.385,87 | 5.448,52 | 9.221,71 | 9.221,71 | 0,00 | 0,00 | 3.115,01 | 3.115,01 | 17.785,24 |
| Garraioaren eta joan-etorrien gastuak | 5.194,69 | 5.194,69 | 7.896,49 | 5.683,31 | 15.141,38 | 15.133,38 | 433,44 | 433,44 | 4.954,16 | 4.725,96 | 31.170,78 |
| Kredituen interesak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 2.537,06 | 2.727,69 | 0,00 | 0,00 | 2.528,00 | 2.528,00 | 5.255,69 |
| Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk | 56.611,12 | 56.611,12 | 50.647,07 | 48.936,17 | 37.812,92 | 37.825,22 | 7.708,78 | 7.708,78 | 17.166,38 | 16.919,97 | 168.001,26 |
| Gastu arruntak, guztira | 320.216,95 | 320.216,95 | 201.318,07 | 196.969,29 | 180.000,00 | 180.194,93 | 159.516,72 | 159.516,72 | 156.134,01 | 155.613,00 | 1.012.510,89 |
| Zuzeneko bidalketari buruzko gastuak, guztira | 91.308,95 | 91.308,95 | 85.238,41 | 85.238,41 | 96.240,06 | 96.037,13 | 92.240,63 | 92.240,63 | 119.573,31 | 119.573,31 | 484.398,43 |
| Onartutako gastuak, guztira | | 411.525,90 | | 282.207,70 | | 276.232,06 | | 251.757,35 | | 275.186,31 | 1.496.909,32 |
| Aparteko gastuetarako dirulaguntza (gehieneko mugak aplikatuta) | | 320.216,95 | | 190.908,48 | | 180.194,93 | | 33.022,08 | | 32.959,08 | 757.301,52 |
| Zuzeneko bidalketetarako dirulaguntza (gehieneko mugak aplikatuta) | | 91.308,95 | | 85.238,41 | | 96.037,13 | | 92.240,63 | | 96.244,05 | 461.069,17 |
| Jaso beharreko dirulaguntza, guztira (gehieneko mugak aplikatuta) | | 411.525,90 | | 276.146,89 | | 276.232,06 | | 125.262,71 | | 129.203,13 | 1.218.370,69 |
| 1. aurrerakina (2003an jasotako dirulaguntza osoaren %30) | | 98.781,33 | | 86.009,41 | | 71.306,58 | | 42.581,26 | | 43.796,26 | 342.474,84 |
| 2. aurrerakina (2007ko hauteskundeetako emaitzen araberako gehieneko dirulaguntza teorikoaren %45) | | 156.126,10 | | 85.908,82 | | 84.504,92 | | 14.859,94 | | 14.831,59 | 356.231,36 |
| Aurrerakinak, guztira | | 254.907,43 | | 171.918,23 | | 155.811,50 | | 57.441,20 | | 58.627,85 | 698.706,20 |
| Likidatu beharreko gainerakoa | | 156.618,47 | | 104.228,66 | | 120.420,56 | | 67.821,51 | | 70.575,28 | 519.664,49 |

## NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTAREN ALEGAZIOAK

2007ko maiatzeko hauteskunde autonomikoetako PSN/PSOE alderdiaren hauteskundeetarako administratzaile Guillermo Herrero Mate jaunak ondoko alegazioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamenturako 2007ko maiatzeko hauteskundeetatik sortu diren kontabilitateei buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari erantzunez, esan behar da txosten horretan 1.965,91 euro, hauteskunde-publizitatearen zuzeneko bidalketarako ("mailing") kanpoko finantzaketaren korrituei eta finantza-gastuei dagozkienak, gastu arrunt gisa birsailkatu direla.

Badakigu doikuntza eta birsailkatze horrek, txostenean berean esaten den moduan: "...ez diola eragiten jaso beharreko guztizko dirulaguntzari".

Hala ere, esan behar dugu hauteskunde-gastu arruntek eta zuzeneko bidalketarako buruzkoek muga independenteak dituztela ezarrita.

Bestalde, gure kasuan, esaterako, ezarritako muga horiek zenbatzen dira PSOE osoaren nazio mailako kontabilitatean. Hori dela eta, birsailkatze horrek, Nafarroan benetako eraginik ez badu ere, txostenak berak aipatzen duen moduan,badu, bai, nazio mailan.

Horrengatik guztiagatik, gure ustez bisailkatze hori ez da zuzena; izan ere, 1.965,91 euroko zenbateko hori jatorriari dagokio, hau da, hauteskunde-publizitatearen zuzeneko bidalketarako ("mailing") kanpoko finantzaketaren korrituei eta finantza-gastuei dagokie.

Horrela jasota gera dadin, bidezko ondorioetarako. Iruñean, 2007ko irailaren 11n.

Sinatuta: Guillermo Herrero Mate

## NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTAREN ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

PSN/PSOE alderdiaren hauteskundeetarako administratzaile Guillermo Herrero Mate jaunak aurkeztutako alegazioa jaso dugu eta fiskalizazio txostenari erantsi zaio osorik, eranskin gisa.

Alegazio horri buruz, honako zehaztapen eta iruzkinak egin nahi ditugu:

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak finantzatzeko erabilitako kredituaren korrituak eta finantza-gastuak birsailkatzea

PSN/PSOEk 194.900 euroko banku-kreditu bat erabili du hauteskunde-gastuak ordaintzeko. Alegatzen du 1.965,91 euro, hauteskunde publizitatearen zuzeneko bidalketarako kanpoko finantzaketaren korrituei eta finantza-gastuei dagozkienak, 2007ko hauteskunde kanpainari dagokion gastu arrunt gisa birsailkatzea ez dela zuzena. Bere ustez, finantza-gastu horiek hautesleei hauteskunde-publizitatea zuzenki bidaltzeko –mailing– gastuei dagozkie jatorrian. Doikuntza eta birsailkatze horrek, Nafarroan benetako eraginik ez badu ere, txostenak berak aipatzen duen moduan, badu, bai, nazio mailan; izan ere, ezarritako mugak zenbatzen dira PSOE osoaren nazio mailako kontabilitatean.

Kontuan hartuta PSN/PSOEk azaldutako arrazoiak korrituek eta finantza-gastuen sailkapenak nazio mailan duen eraginari buruz, Comptos Ganberak erabaki du kredituaren korrituak eta finantza-gastuak banatzea, finantzatu beharreko zenbatekoen proportzionaltasunaren irizpideari jarraikiz: hauteskunde-gastu arruntak eta hauteskunde-publizitatearen zuzeneko bidalketari buruzko gastuak. Horren ondorioz, kontusail horien arteko barne doikuntza egin da, 202,93 eurokoa, txosten honetan jaso duguna.

Horrenbestez, txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2007ko irailaren 18an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

**H saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

# Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina.

*AKATS ZUZENKETA*

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginean akatsa atzeman denez, –2007ko urriaren 16ko 15. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, hona akats horren zuzenketa:

132. artikuluan, 1. eta 2. idatz-zatietan, honakoa dio:

“56. artikulua”

Hau behar du:

“55. artikulua”

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

| HARPIDETZAREN PREZIOA<br>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA<br>**NAFARROAKO PARLAMENTUA**<br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Navas de Tolosa, 1<br>31002 IRUÑA |
|---|---|
| Urtebete ........ 47,00 euro<br>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ........ 1,25 »<br>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ........ 1,40 » | |

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, SL (Lizarra).

Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua